


ZENBAT BURU
Aitor Argarate

ERREPORTAJEA
Santa eskearen
75. urteurrena

GEHIGARRI
BEREZIA
Sagardotegien gida



BERBETAN
Rosa Palik euskara
ikasie kataluniarra

KIROLA
Eskolarteko
Kros Txapelketa

KULTURA
Elgoibarko Izarra
Idatz Lehiaketen
sari banaketa

BARREN

2000ko atsailaren 4a
VIII. urtea - **307. zkia**

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Santa eskea Elgoibarren
75 urteko usadioa

"Santa Ageda bezpera degu eta oles egitera gatoz"

IK_ASTE TXEA

Elgoibar




Gurekin
Hasi

Gurekin
Hezi



MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA: EGUNERO 9:00etatik 19:00etara
ARGIBIDEAK: 943 74 13 31 telefonoan
E- MAILA: nsp42e1g@planalfa.es



AITOR ARGARATE

lenbatgarren?

Urteak ez dira alferrik pasatzen, zorronez, eta, sasoiari sasoikoa jateko gonbita egiten diguten bezala, geuk ere, garaian garaikoari egin behar izaten diogu aurre.

Hizkuntzetan ere, modak agintzen du neurri batean, halaxe dauzkagu adibidez: nolabait esateko, "si goiz etorri nintzen etxera", "politikoki zuzena", e.a.

Nik, oster, galdegile bat daukat aholbarrietan azken bolada honetan, zenbatgarren?

Hori dela-eta, honako hauek ohikoak dira:

- Bada, ez dik oso ondo egin baina hurrengoan txikitu egingo ditiagu.

- Gailendu egin gaituk, nabarmen gainera, izan ere, gu bezalakorik...

Badakik, gaurko gizartean zerbaite izan nahi baduk, lehena edo akabo!

Baina galdera hori, niri dagokidan arloari lotutakoa bada, dela lanaren ingurukoa, dela kirol mailakoa, edo dena delakoan, nik ez ditut arestian emandakoak bezalako erantzunak ematen, ezta hurrik eman ere:

Hemen, badakik/n, ahal dena egiten.

- Kontua ez al da bada, ondo pasatzea?

- Azkena, eta ez dakik/n ondo zelan disfrutatu dudana! Gainera lehena izateko az-

kena ere egon behar dukln, ezta'? (honako hau, kirol mailan puntan-puntan dabilen Elgoibarko lagun batek gogorazten dit, eta nik eskertu).

Halaxe, bada, kontradizioak jota gaude-nok, ez dugu ezpal bera erabiltzen geure buruarentzat eta geure etxearentzat, eta ikaragarri maite ditugun hauentzat, lasaitasunik eta baretasunik gabe, tentsioa, presioa luzatzen diegu, horrela, laster batean, aukeratzen duten bidea errazago jorratuko dutelakoan, hobe beharrez.

- Baina oso gazteak dituk/n, utzi gozatzen, izango dia/nate egurra hartzeko astirik!

- Orain egiten dutena, betiko izango duk/n, beraz, umetatik hasi behar dituk/n etorkizunari aurre egiteko prestatzen.

Bitartean, denbora ate joka dabilkigu, eta ikasketetan gertatzen den lez, aldian-aldian ebaluazioaren emaitzak aurkeztu behar ditugu guztiok mahai berean jezarrita gaudenean, batek esandakoa besteak aintzat hartuko duelakoan eta, artean oso zuzen egin barikoak bideratuko ditugulakoan, bizimodu honetan lehia egon badago eta, prestatu ere prestatu behar, bai, aisialdia, jolasa, maitasuna, bihurrikeriak ere hor daudela ahaztu barik, baina.

- Hi, Sabin, zenbatgarren? edota,

- Hi, zer? Bahabil? Ez daukak itxura txarrik!

Atal hau ez da BARRENen editoriatu. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoart, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Caiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

B... , Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGO1BAR
943 74 41 12

Publizitatea:
943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAJLEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA
KAZETARIAK

Elgoibarko Udala
Irati Agirreazaldegia,
Jon Eugi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA
MAKETATZAJLEA
ADMINISTRAZIOA
GesEhrrziA

Maitane Cid
Bea Ansola
Amaia Martin
Rafa Akarez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAJLEAK

AinhoaAndonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,
Aitzol Arriola, Martin Dominguez,
Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,
Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,
Ion Loiota, Ongarri Zine Kluba,
Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,
Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ARBAZKFA

Julian Azkue

BANAKETA **ARDURADUNA**

Imanol Larrañaga

INPFIIATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SB-1.038,92

ISSN

1139-1855.

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundurako
aldizkaria.*



*gizarte-ekintza
obra social*

4 DANOBAT

44 GOITI
GRUPO DANOBAT

Ume Hiperaktiboei buruzko azalpena

Tdatzi honen bidez, joan den ostiralelan hiperaktibitateari buruz agertutako datu batzuk zuzendu nahi ditut.

Lehenengo atalean esan nuen, arrazoiak garbi ez direla ezagutzen eta momentu honetan gaixotasunaren diagnostiko koari buruzko aurrerapenak izan arren, oraindik ez daudela baieztatuta. Aurrerapenak, konkretuki hiru alorretan gertatzen ari dira: radiodiagnostikoan, genetikan eta biokimikan.

Bigarrenean, portaerari begiraturaz, agertzen diren kondukta batzuk beste umeen artean ere ager daitezke, baina horrek ez du esan nahi hiperaktiboak direnik.

Montse Iraolagoitia
Psikologoa

The Question (Gaidera)

ARENen lehengo astean eginiko 1.?"gaderari" buruzko puntualizazio batzuk egin anhi nituzke.

Ez zitzadan egokia iruditu galdera planteatzen. Are gehiago, uste dut BARREN aldizkari herrikoa dela, eta herriko arazoetan eta gaietan kokatu behar dela: Gazteon egoera, IMH euskaraz izan beharko litzatekeen edo ez, Elgoibarko presoen egoera, intsumisioa, drogak herrian, Udaletxearen funtzionamendua, kultur taldeen egoera.

Zergatik kondenuatu behar du EHK egin ez duen zerbait?

Gai hauek oso delikatuak dira tnodu horretan tratatzeko.

Hodei Otegi

Aparkalekuen gestioan hobeladza beharra

utoentzako aparkalekuei buruz hitzgin nahi nuke, eta batez ere Madala inguruan gertatzen zaizkigun arazoei buruz.

Oso ongi iruditzen zait ezinduentzako aparkalekuak egokitzea, baina "friondo" taberna parean bi aparkaleku prestatu dituzte horretarako eta leku batekin nahikoa litzateke. Horretaz gain, beste 4 auto aparkatzeko lekuak debekatu dituzte.

Obrak direla-eta, Ikastolara doan bigodeko alderdi batean ezin daiteke autorik aparkatu astean zehar.

Hori gutxi balitz, atzeko zelaian lehen aparkatu zitezkeen autoen heren bat baino gehiago ezin daiteke aparkatu gaur egun, eta "Malape" taberna parean hiru autorentzako lekua kendu dute. Ez nago ziur motook aparkatzeko egokitu duten ala ez, baina horrela balitz iragarria iruditzen zait erabaki hori, motoentzako nahikoa Ieku baitago parke barnean, "Txusko" denda paretik erreka hertzera.

Azkenaldi honetan udaltzain ugari ikusten da Madala inguruan. Zai egoten dira eragotzitako lekuan autoak aparkatzen dituztenei isuna ipintzeko. Ez dut uste baliokoa denik ematen duten arazoia: denek esaten dute aparkaleku nahikoa dagoela herrian eta eginiko ikerketetan oinarritzen dute erantzuna.

Baina, aparkalekuen kopuruan ez dago arazoa, hauen kokapenean baizik. Autonk aparkatzeko hiru gune daude herrian: Santa Ana kalearen bukaeran, Plaza Txikian eta estazio ondoan. Aparkaleku hauek Madalatik aparte xamar geratzen dira eta herriko gunerik transitatuenak aparkaleku gehiago eduki beharko litzateke.

Honi buruz Udalak hartu duen erabakia, berriz, kontrakoa izan da; lehen Madala inguruan aparkaleku gutxi baldin bazegoen, orain gutxiago dago. Gainera herrian monumentuak kokatzeko dirua baldin badago, beharrezkoak diren aparkalekuak egokitzeko ere egon beharko iuke. (Zelaia, adibidez, leundu eta asfaltatu daiteke).

Zergak zerbaitetarako ordaintzen ditugu, ezta?

A.G.

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.

Aurten ba al duzu sagordotegira joateko asmerik?



XABIER ALBERDI
24 urte, almazenista

Bai, badaukat denboraldia bukatu baino lehen joateko gogoia. Beste urte batzutan ere izan naiz eta giro ona egoten da. Jende asko ezagutzen da gainera.



ROSA LABRADOR
43 urte, etxeoandrea

Hilabete honetan bertan Aginagako sagardotegi batera joango naiz. Lagunekin mikrobusean joateko asmoa daukat, horrela piskat edanez gero ez daukat inolako ardurarik.



IRUNE BERASALUZE
31 urte, abokatua

Bai, joango naizela pentsatzen dut. Kuadrilan joan izan naiz beste batzutan, eta sagardoa gehiegi gustatzen ez bazait ere, bertako giroa oso ongi egoten da.



JOSE GARCIA
65 urte, jubilatua

Ez, jubilatua naiz eta ez nago horrelako gauzak egiteko adinean. Ez naiz sekula sagardotegian egon, eta joateko asmorik ere ez daukat.



ROSA ZUBIZARRETA
40 urte, etxeoandrea

Ez daukat ohiturarik, baina behin izan nintzan lagunekin eta gustatuko litzaidake berriz jutia. Sagardotegian nahikua eran leike, baina norberak hartu bihar dau neurrixa.



INAKI BENGOETREA
53 urte, mekanikoa

Ez, ez naiz sagardo zalia. Behin edo behin izan naiz sagardotegixan eta tokau leike aurten ere egunen baten jutia, baina ez dakat oinagoz behintzat juteko planik.

Peque ch

U#r&evrtZaSioi, auz&ff

"AURREZTU EZAZU BERRI-BERRI dagoena EROSITA!"

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak
Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Interesatuko zaizu!!

Ez bota...Ez gorde...Ez oparitu...

SALDU!!




I. URTEURRENA

1999ko otsailaren 6an, 78 urte zituela hil zen

JUANA BASTIDA URAINen oroimenez

URTEURRENEKO MEZAK izango dira Parrokian larunbatean, hilak 5, arratsahleko 19:00etan, eta igandean, hilak 6, goizeko 11:00etan Madariagako San Isidro elizan. Joaten zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Santa Agedia koplak ka

Urtero moduan, Santa ageda eguna, hau da, otsailaren 5a, inguratzen den bakoitzean Santa eskeko koruek koplak doinuz alaituko dituzte Elgoibarko kaleak eta baserriak. German Uriguen "Exeginak" 1925. urtean hasi zuen Santa Eskea Elgoibarko kaleetan egiteko ohitura. Duela 75 urte broma bezela hasi zena, madio bat da gaur egun. Ixidor Solupe aspalditik irrtetzen da Santa eskeko koruetan kantuan. Une honetan Elgoibarko Santa Eskeri buruzkollthuru bat ari da prestatzen eta bere asmoa urtea amaitu baino lehen argitaratzea litzateke. Beraz, nor hoberik azken 75 urte hauetako hainbat konturi buruz berba egiteko.



EtXegina Usadioare bultzatzailea



German Uriguen "Emegina" bertsolaria Ermuan jaio zen. Santa eskeko koplak 1915. urtetik kantatzen hasi zen. Bertako Santa eskean 5-6 urte kantuan pasa ostean heste 5 urte egin ziruen Eibarkoan. Azkenik, lana zeJa-eta Elgoibarko 'Gabilondo' lantegira etorri zen 1924. urtean. "EtXegina" eta bere koadrilakoak iran ziren Santa eskeko koplak Elgoibarko ka-

leatan kantatzeko ohituraren sonzaileak edo bultzatzaileak. 75 urte hauetan hi koplari bakarrik izan ditu kalean egiten den Santa eskeak. Gennan Uriguen "EtXegina" 55 urte egin zituen eta 1980. urtetik Kepa Urain ibiltzen da. aceginak bat bateko koplak hamarrekotako handian botatzen zituen, ordura arte baserrietako Santa eskean zortziko txikian aritzen ziren. EtXegina honako 12 lagun hauek laguntzen zuten kontak eginez: Eulogio Estarta, Teodoro Ezenarro, Juan Mujika, Iñigo Gabilondo, Julian Izeita, Gerardo Aniola, Manuel Astiganaga, Silvino Gabilondo, Demetrio Vallejo, Domingo Sanchez, Miguel Unzueta eta Salvaclor Unanue.

"Lehen erdal girua zan nagusi Elgoibarren, eta kalera lanera etorritako baserrixarrentzat oxigeno botila baten antzerakua zan Santa eskeko ohituria." NIDOR SODUPE

Broma bezala hasi zen

Ixidor Solupe azaldu digunez, hmtna hezala hasi zen Santa eskia. 'EtXegina' eta bere koadrilakoak 1925. urtean urten zian lehen aldiz kalera koplak kantatzera, Juan Pedro, 'Aroatixa' etxeko mutilari adana jotzeko asmuakin jun zian honen etxeko atarira. Juan Pedro mutilzaharra zan, eta zeken eta nes-

kazale famia zakan. Lehengo ohircuria zan neska lagunari etxe aurrian koplak kantatzia, heste kultura eta henialcle mordotan bezalaxe, eta hori izan leike "EtXeginan" adar jotzian arrazoia. Hala ere, Juan Pedron amak orduko 7 pezeta eman zizkien koplariari, eta baitxa merixenda edarm ere". Gauzak horrela, kale inguruko lusenietara, Olasont Laukora. Zubizarretara... jotea erabaki zuten gazte adarjotzaileek. Guztira 75 pta, lortu zituzten, eta aste guztiko merixendak pagatzeko heste ltu raben". Nekaml inguruko giroagaur egun-

goaren oso bestelakoa zen. 'Gaztiak domeketako meza nstian, edota egun seinalatuetan bakarrik elkadzen zian, Santa Ageda egun seinalatu hoietako bat zan. Gaztiak elkartu, haseniz baserri kantau eta goizaldera arte pananda eitxen zahen. Bestalde, kallean oso euskara gitxi entzuten zan lehen. Lana zala eta kalia bizi zian baserriemrek beraien nortasuna eta hizkuniza plazaratzeko aukera urriak zbazten, Santa eskia oxigeno baten antzerakua zan herriur hauentrat eta batru barnm sartuta zaken ohiant bat zan, sentimenduz betia".

ean, 75 urteko usadioa

Bildutako dirua herriko behartsuenei

1927ko Santa eskean bildutako dirua behartsuetei ematea erahaki zuten. Elgoihar izan zen ohitura hau zahaIdu zuen lehen herria. Herriko behansu hati eman edo garai hanan behartsuentzat arropak biiltzen zituen "ropero deI niño pobre" elkarteari dirua eman ulantzan ihili ostean, hatutako dint guztia hentar hakar hati edo biri ematea egokiagoa zela erahaki zuten. Ixidorrek esan digunez, "Santa Ageda hezpera haino egun hatzuk lehenao erahakitzen zan dirua nori eman. Parrokua, alkatea, German Uriguen eta herriko zenhait enpresatako nagusixak bikzen zian herriko behartsuena zein zan aukeratzeko".

Erabaki polemikoa

1978. unetik aunem Santa eskean hatutako dirua 'Caritas'i ematen hasi ziren. Aurreko urtean gaizki esan eta kritika ugari sortu zituen erabakilt izan zen aldaketa honen anazoi nagusia. E3enetan behamt zeukan persona dirua ematea erahaki zen urte hartan. Baina, pertsona hori ez zen ellpihartamt. Extremadunzkoa eta henitar askok ez zuten hegi onez ikusten kmpotar batentzat dima hatzea. Ixidorrek azaklu digunez, "Alemaniatik etorri zan bere ernazte. seme-alaha eta 92 urteko amaginarharenekin. Soidan zakanakin hakarrik etorri zanElgoibarrera, zetua goian eta lurra Sinisten zaila hada ere, gauzek Ixarrera ein zaben, izan ere, eto-

ri eta 3 hilabetera ernaztia hil jakon. Hori gutxi litz, istripu hatian hankia galdu zahan eta lanik ezin elda geratu zan eta oso penisio bajuakin". Dintari eman erabakitzerakoan hatzanak ez zuen hirritan pentsatu beharrik izan, baina urte hanan jende guod joan zen eskean eta clim gutti hatu zen, 100.000 pta.

"Salbia kantatzen dan bakoitzian jendiak negar eitxen dau, sentimenduz betetako momentuak izaten dia"

inguru". Hala eta guzliz gizon hark here jaioterrira bueltatzeko nahikoa diru lortu zuen eta hertara joan zen bizimodua merkealra zela-eta. "Gizona noIa eskertu jakin gahe geratu zan, neganez. Baina ez zen negar egin zuenbakara izan, Santi Kottabarriak eta Ramon Uriguenek oso gaizki pasa baitzuten. Kritika oso gogorak jaso zitxutzen kanpotar hatentzat dinia hilizeagatik. eta Santa eskiak jamaituko zaban zailantzak egon Hori clela eta.threngo unetik aurrera dirua 'Caritas' ematea erabaki zuten.

Salbea

German Uriguen "Etxegina" berak asmatu zuen salbea 1915ean, oraindik Ennuan hizi zela. Bensolaria zenez, elizkizunetan hildakuei agurra



egiteko eskatu zioten. Berak otoitza kantuz egiten zuen eta Santa eskean ere halaxe egin zuen ondorengo tmeetan. Salbea kantatzeko doinu herezi hat erahiltzen zuen, haina jatoniaz galdetzen zitzaionean irrifar hatez erantzuten zuela esan digu Ixidorrek. Euskal kulturari aintzinatik datotren usadioa da haldakoen oroimena hizirik tnanentzea. Hori zela-eta, urte banuan hil direnen etxe aurrera joaten zen eta 'kantau edo enezau?' galdetzen zitzaien sendikoei. "Salbia kantatzen dan bakoitzian jendiak negar eitxen dau, sentimenwz betetako momentuak izaten clia", esan digu Ixidorrek. Bestalde, salbea kalean sonutako ohitura hat dela gogoratzea komeni da eta ez kaleratu egin den elizako ohitura hat, jende askok uste duen moduan.

Eskultura sinbohkoa

Santa Ageda Egunean bolatokiko parkean jarriko den eskulturak usadio zahar honen oroigarria izateaz gain, halio sinboliko handia du. Izan ere, Santa Agedako koruek sorreratik defendatzen dituzten glza baloreak gogora ekarriko ditu: elkartasuna, apaltasuna, errespetua, askatasuna, eta amolua, hesteak heste. Ixidorrek argitu digun moduan, "giza eskuhicleak errespetatzeko giza haloreen jahe izatea ezinhestekoa haita".

Argazkiak: Azkue



Hona argazkia bolatokiko parkean ateratako da 1964ko grini eskean. Leku honetan bertan Santa Ageda egunean jarriko duten eskulturak giza baloreak sinbolizatzen ditu.

• Matrikula zabalik Elgoibarko euskaltegietan

Otsallaren Ilra arte irekita egongo da matrikula epea AEK euskaltegian eta Udal Euskaltegian, AEK euskaltegian EGA eta euskalduntze maila guztietako klaseak emango dira. Langabetuek eta ikasleek Udalaren laguntzari esker matrikularen erdia ordainduko dute. Argibide gehiago nahi izanez gero, AEK euskaltegira hurbildu edo 943 74 13 32 zenbakira deitu beharko da. Udal Euskaltegian, berriz, goizez 8. urratseko klaseak emango dituzte, arratsaldez, berriz, 2. 4. 8. eta 10. urratseko eta EGAKo eskolak izango dira. Interesatuek Udal Euskaltegira jo dezakete edo baita bertara telefonoz deitu ere (Tel: 943 74 27 31). Euskarara ikasteko edo daukazuena maila hobetzeko aukera ezin hobea duzue, beraz, herriko bi euskaltegietan.

• Loteria primitibak 8 milioiko saria laga du Elgoibarren

Joan den osteguneko, urtarrilaren 27ko, Loteria primitibak 8.783.886 pezetako saria utzi du Elgoibarren. Bost zenbaki eta konplemetatioa asmatu zituen Elgoibarko 40 laguneko talde batek. Asmatzaileek, 84 apustuko txartelari, Elena Arriolak San Frantzisko kalean duen estankuan jarri zioten zigllua eta 16.800 pezeta ordaindu zituzten. Jadanik saria jaso dute eta orain gastatzeko aukera izango dute irabazleek.

Udan hasiko dira San Pedro auzoko uholde arriskuak ebitatzeko lanak

320 milioi pezetako aurrekontua du proiektuak

San Pedro auzoan erreka hasiz gero, ufalak gertatzeko arriskua dago. Hori dela-eta uholdeak ebitatzeko Deba ibaian egin beharreko lanak aurten hasiko dituzte. Elgoibarko Udaletik adierazi dutenez, "proiektuak 320 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantziatuko dute". Diputazioak aurten lan hauei dagozkien 50 milioi emango dituzte, obrak udan hasteko ibwropena azaldu zuen Guillermo Garate alkateak.

12 hilabete inguruko lanak

Obren helburua, uholde arriskua ebitatzea da. Izan ere, San Pedro auzoan Deba ibaiak zabalera ezberdinak ditu, eta Lerungo industrialdeko bihurtzean asko estutzen da. Ondorioz, ur pilaketak gertatzen dira eta inoiz, ura San Pedroko etxeetara iritsi da.

Arazaari aurre egiteko, lehengo zubi zaharraren ordez, zintzilikako zubi berri bat eraikiko dute jendea bertatik igaro ahal izateko. "Urak, pasabide berriaren azpitik igar-



Oraingo harrizko zubiaren ordez, zintzilikako pasabidea jarriko dute ufalak ebitatzeko.

rotzeko ez du inolako oztoporik izango, eta horrek uraren maila igotzea eragotziko du, baita uholde arriskua jaitsi ere", esan zuen Guillermo Garate alkateak. Orain dagoen harrizko zubi zaharrak, zutabe sendoak ditu eta horiek traba egiten diote urari bertatik pasatzerakoan. Zubi berria, aldiz, Calatrava arkitekto ezagunak diseinatutakoaren antzekoa izango da. Zintzilik egongo da, ez da zutabetan oinarrituko eta horrela urak ez du eragozpenik izango. San Pedro auzoko bizilagunek pasabidea edukiko dute industrialdera joateko, autoek aldiz, ez.

Joan den Osteguneko grebak komertzioan izan en erantzunik zabalena

Ikastetxeetan eta Udaletxean normaltasunez egin zuten lan

Toan den osteguneko, urtarrilaren 27an, euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen alde egindako grebak ez zuen erantzun bera izan arlo guztietan. Goizez herriko denda eta taberna gehienak irekita egon baziren ere, komertzioan eta ostelarietan 12:00etatik aurrera lanuztea ia erabatekoa izan zen. Enpresetan grebak oso oihartzun txikia izan zuen eta administrazioari dagokionez, Udaleko langileek ez zuten lanuzterik egin. Elgoibarko ikastetxeetan eskolak normaltasun osoz eman ziren osteguneko.

Bestalde, grebarekin bat egin zuten hainbat langilek eta ikasleek manifestazioa egin zuten goizean herriko kaleetan "Euskal presoak etxera" lelopean. Greba deitu zuen Euskal Herritarrok alderdia eta LAB sindikatua orohar



EH eta LAB pozik agertu ziren euskal gizarteak erakutsitako konpromisoarekin

pozik agertu ziren euskal gizarteak erakutsitako konpromisoarekin. Beraiek aurrez jarritako helburuak bete ziren eta greba egin ez zutenei elkarlanean aritzeko deia ere luzatu zieten.



Antton eta Uxue Alberdi anai-arrebek Euskaltzaindiko Azkue Saria irabazi dute

Umeentzako eta gaztetxoentzako *Azkue Literatur Sariak* banatu zituzten joan den ostiralean, urtarrilaren 28an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan. Irabazleen artean Antton eta Uxue Alberdi Estibariz elgoibartarrak daude. Anttonek lehen saria eskuratu zuen narrazioan "Malkoen gainetik aurrera" lanarengatik. Gurasoak gerran galdu dituen haur baten bizipenak kontatzen ditu idazlanean. Uxuek, berriz, olerkian, bigarren saria lortu zuen, "Zuri" izenburudun maitasunezko bertsoengatik. Lehiaketan, ikasleek ezetik lana zuzentzen lagundu duen irakasleak ere jaso ohi du saria, eta kasu honetan aipamena Andres Alberdientzat izan da.



► Pilar ikastetxeko ospakizunak

Azken bi asteotan hainbat ospakizun izan dituzte Pilar Ikastetxeko ikasleek. Urtarrilaren 30ean 'Bakearen Eguna' izan zen eta haurrek, ostiralean, urtarrilaren 28an, egin zuten ospakizuna. "Bakea bera da bidea" lelopean, uso bat askatu eta abestu egin zuten. Bestalde, San Blas Egunean, otsailaren 3an, ikasleek beraien opilak, janariak eta eztrariak zaintzeko kordelak eramane zituzten bedeinkatzera Parrokiara. Gaur, Santa Ageda bezpera dela-eta, ohitura zaharrak berritzeko asmoz Santa Ageda koplak abestu dituzte haurrek ikastetxean bertan.

Elgoibarko dultzaineroek Julian Romanoren omenezko diskoan bartu dute parte



Julian Romano Lizarrako dultzaineroa hil zela ehun urte bete direnean, bere omenezko diskoa kaleratu dute. Disko bikoitza da eta Euskal Herri osoko 17 talderen 25 kanta biltzen ditu. Tartean, Elgoibarko Dultzaineroek

Elgoibarko Musika Bandako hainbat kideekin jotakoa. Evaristo Izetaren "Amor de Mustne" abestia interpretatu dute elgoibartarrek. Diskoak estilo askotako musika biltzen du, izan ere, dultzainari lagunduz saxoa, Kepa Junkeraren trikitia, sokazko instrumentuak, pianoa, organoa, txistua zein beste hainbat musika tresna entzun daitezke, Diskoa eskuratu nahi duenak Elgoibarren, Pitxintxu liburudendan dauka salgai eta 2.500 pezeta balio ditu.

Txandakako Enpresa Ingeniaritza

Enpresarekin lanean garatutako lanbide proiektua.
Lan kontratua lehen egunetik.

Bilera informatiboa

0 Otsailaren 16an, asteazkenean, bilera informatiboa egongo da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak azalduko direlarik.

☐ 17:30ean Makina Erremintaren Institutuko instalazioak bisitatuko dira eta 18:00etan bilera informatiboa hasiko da.

Prestakuntza ikastaroa

☐ Makina Erremintaren Institutuak ingeniaritza-probetarako prestakuntza ikastaro bat eskaintzen du. Ikastaroa, martxoaren 11tik maiatzaren 27ra izango da, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

2000/2001 ikasturtea

■ Makina Erremintaren Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

■ TeL 943 74 41 32
Faxa: 943 74 41 53
E- maila: ingenieria@fmh.es

■ Orduategia:
08:00-13:00
14:30-17:30



Cesi Pirtul 21 trentes





Sagardo2

ABURUZA (Aduna)

- **NAGUSIA:** J. Joxe Aburuza Otegi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik irailera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 300 lagun.

Olatza baserria (Aduna)
13. 943 69 24 52



AULIA (Legorreta)

- **SAGARDETEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara.
 - **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
 - **LEKUA:** 140 lagun.
- Aulia Enea baserria (Legorreta)
tr 943 80 60 66

TOLARE
Sagardotegia



BEGIRISTAIN (Ikaztegieta)

- **NAGUSIA:** Antonio Begiristain.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

Iturrioz ellea (Ikaztegieta)
17 943 65 28 37



EIZMENDI (Hernani)

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak ekarria.
- **LEKUA:** 160 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)
12. 943 55 64 05



GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta S. A. T.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** txotx sasoi.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua,
- **LEKUA:** 110 lagun zutik.

Oialume bidea, 59 (Astigarraga)
tr 943 55 22 42



ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDETEGI SASOIA:** urtarriletik maiatzera.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Aldaba-Txiki auzoa, 15 (Tolosa)
Ir 943 65 29 64



oren txinparta

Hona hemen sagardotegietako giroaz gozatzeko 12 aukera

KORTA (Gabiria)

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskeria. Gazteentzako menu berezia (2.200 pta.)
- « **LEKUA:** 110 lagun.

Korta sagardotegia (Gabiria)

Tr 943 88 71 86



LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaera. (Astelehenetan itxita)
- **JATEKOA:** sagardotegikoa zein norberak eramandakoa.
- = **LEKUA:** 120 lagun.

Larregain etxea, Ereñozu (Hernani)
27 943 55 58 46



OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa. Udan erretegia.
- **LEKUA:** 200 lagun.

Otatza baserria (Zerain)

117 943 80 17 57



OTEGI (Lasarte)

- **NAGUSIA:** Julian Otegi Egia.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 170 lagun.

Soile Enea baserria (Lasarte)

Tr 943 36 50 29



OTSUENEA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ximon Etxeberria.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua nahiz norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 lagun.

Osinaga auzoa (Hernani)

tr 943 55 68 94



SAIZAR (Usurbil)

- **NAGUSIA:** Esteban Lertxundi Uria.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoa.
- **JATEKOA:** sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 1.000 lagun inguru

Saizar baserria, z/g

Tr 943 36 22 28/37 29 82







ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 25ean, 70 urte zituela hil zen **SABIN LARRAÑAGA ODRI**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 30ean, 91 urte zituela hil zen **ANTONIA ALONSO BARRENECHEA**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 23an, 71 urte zituela hil zen **LUIS IRURETA GABILONDO**Oren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2000ko urtarrilaren 28an, 95 urte zituela hil zen **MARIA GOYOGANA ZULAICA**Aren (**Simon Agirrereren alarguna "Errezabal"**) sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Sa4", Vappza 74-14(a

1991ko otsailaren 2an hil zen
19 urte zituela.

9. URTEURRENA

*Iragan da denbora,
iragan dira urteak
txoriek egin dute kantu
eta irten dira loreak
baina oraindik
gure bihotza tristetzen du
zu gurekin ez egoteak.*

Zure koadrilakoak

JOSE MARI ARANBERRI:

"Baserrixany garai batian, 40.000 sagardo botila inda gauden

Txotx garaian nzurgilduta gauden honetan, Elgoibarko sagardoari tarte txiki bat egiteko une egokia dela ikusi dugu. Garai batean inguruetan gehien saltzen zen sagardoa Aitz Bizkar baserrian egizdako zen. Gaur egun etxerako baino ez dute egiten, baina guk bertako Jose Mari Aranberrirekin hizketalditroa izan dugu sagardogintzazi buruz zertxobait gehiago jakin nahian. Gainera garbi utzi digu Jose Mari sagardoa bertako gauza dela eta gazte jendeak sagardoa edzteko ohitzerrari eutsi behar diola.

- Aitz Bizkarren bi urtetik behin egiten duzue sagardoa, ezta?

- Bai hala da, sagar urtia bi urtian behin izaten da eta guk orduan eitzen dou sardaua. Beste leku batzuetan kanpotik sagarrak ekarritxa urtero eitzen dabe, baina guk bertako sagarrk ibiltzen ditzugu. Etxian sagartik ez dakau baina San Lorenzo bailetik ekartzen douz. Gainera denboria eman ez gero sardaua asentau eitzen da, eta erateko hobe izaten da hori.

- Zein prozesu jarraitzen duzue?

Sagarralekarri, matxakau, makiniakin patza atera eta gero estutu eitzen da, bai eskuz edo bai elektrikuari. Aurten elektrikuari ein dou. Gero aztarm, dana atera, deposito batera atara eta ondoren barriketan sartzen dou. Fermentatzen laga azkenian enbotellau. Dana modu artesanalian eitzen dou.

- Orain altzairuzko barrikak erabiltzen dituzte askok. Zuenak nolakoak dira?

Guk lehenguak, egurrezkuak ibiltzen douz. Egurrezko barrikak ondo tratatzen ez bada eta zikinen bat barruan gelditzen bada. usteldu in leike. Azerozkuak errezaio garbitzen dia eta gainera tenperatura kontrolauta dauke. Guk dakaguzenekin `al tanto' egon bihar da. Dana dala, berriz ere egurrezkuetara bueltau da jendia, tradizivagaitzik. Baina modu industrialian eitzen dabanatzen beste barriker erreztasunak ematen diuez.

Sagardoa pikatuko dela jakinez gero zer egiten duzue?

- Guri ez jaku sekula halakorik pasau. Beti lagatzen dou sagarra moztua, berrixa ateratzeko eta nahastatzeko. Baina txarra urtenez gero horrek ez daka memedixorik. Nik ateratako sardau dana berdintzen dot, eta barrika bat txarra badao, danak halaxe tokauko liake.

- Gero eta sagardotegi gehiago ari dira zabaltzen azken aldian.

- Neri oso ondo iruditzen jata. Hala ere, sagardotegixa


eta restaurantia konpagnatzia oso gatrza zaila da. Neretzat sagardotegixa bakailao tortilla, txuleta, intxaurrak eta gazta piska bat, sagardoarekin lagunduta jateko lekua da. Baina hortik aparte beste gauza batzuk ematen hasten bada, ez da gauza bera. Gure aitza zanak euki zaban proiektua gurian sagardotegixa ipintzeko, baina proiektu hutsian geratu zan.

- Garai batean Aitz Bizkarreko sagardoa inguruko berritan ere edaten zen, ezta?

- Bai, hemen baserrixan 40.000 botila inda gaude. Azkenengo bider, berriz, 4.000 besterik ez genduzen in. Lehen asko saltzen zan eta jendia ere gehixao bihar zan horretarako. Ni bakarrik geratu nitzan eta ohiturak ere aldatu dia. Baina ahal doten bitxartian segitxuko dot eta ia ondorenguek ere segitzen daben, kapritxorako bada ere sardaua eitzen.

- Zu zeu sagardo zalea al zara?

Nik lehen ardaurik ez zauanian sardaua bakarrik eraten zala ezautu naban. Mutil koskorak ginala, armosau ostian sardau trago bat hartuta juten ginan eskolara. Oin ere ni edozein lekutara juten banao, beti sardaua eskatuko dot erateko. Guk paladarra sardau gozora inda dakau eta hortik zihar jun ezker mikatzaua etaritzen dabe, kanpoko sagarrekin inda egoten dialako askotan.



Baserriaren transmisiorako LEGE BERRIA



Baserria bere osotasunean seme edo alaba bakarrari aukera ematen du lege berri honek.

gero, beti ere testamentuaren bidez, baserria eta lurrak, seme edo alaba bakar bati lagatzeko aukera izango dute, beste seme-alabei ezer uzteko obligaziorik gabe. Baserria, bertan lanean jarraituko duenari utziko diote.

Legearen beste aukerak

Aurrez aipatutako legeak aldaketa nabarmenak ekar baditzake ere, legeak honako beste aukera hauek ere ematen ditu:

Komisario bidez ordenatzea: Testamendua egiten duen pertsonak, edozein pertsonaren esku laga dezake baserriaren eta hari lotutako ondasunen oinordea izendatzeko aukera.

- Ezkontideen arteko testamendua: Ezkontideek agiri bakar baten bidez izenda dezakete baserriko oinordea.

- Oinordetza itunak: Baserriaren eta hari lotutako ondasunen ordenazioa, eskritura publiko bidezko oinordetza itunarekin egin ahal izango da. Horretarako, ituna egiten dutenek ezkontzako hitzarmeneko eskritura erabil dezakete.

ENBAren ustez, hainbeste urtetako saiakerak merezi izan du, lege berriak baserriarrei mesede handia egingo dielako, baserria osorik mantentzeko bide berri hau eskainiz. Gainera, kontutan izan behar da, lege honek ez di-tuela agortzen baserriaren eta familia hondasunen ordenazioaren inguruan Gipuzkoan dauden ohi-tura zibilak.

Urte berrian sartzeaz bat, Gipuzkoako baserriak transzmititzeko orduan lege berria sartu da indarrean. Legearen onespenean ENBAk (Euskal Nekazarien Batasuna) partehartze zuzena izan du, sitzdiakutako aholkularia den Pili Zubiarrain abokatuaren bitartez. Legeak aldaketa garrantzitsuak ekar ditzake, bai historiari begiratuta, baita egunerokotasunari dagokionean ere. Izan ere, baserria bere osotasunean seme edo alaba bakar bati transmititzeko aukera ematen du. Guk, legearen berrijakiteko ENBA sindikatura jo dugu eta Itziar Arteagak honako argibideak eman dizkigu.

ren zati bat zegokien. Baserria osotasunean mantentzeko, berriz, askotan, seme edo alaba baten esku utzi da, eta honek bere anai-arrebei dirutan ordaintzen zien legez tokatzen zitzaizen zatia. Baina anai-arreba guztiekin kopuru horiek adostean bat etortzea ez da erraza, eta akordiorik ezean, baserria zatitu egin behar izan dute.

Egoera berria

Lege berriaren helburua, Gipuzkoan, baserria familia barruan, zatitu gabe transmititzearen ohitura legez arautzea da. Belaunaldiz belaunaldi eskualdatu ohi diren baserri ustiaketat gaur egun eragozpenak daude nekazari gazteek jarraitzeko. Eragozpenen artean, gizarte modernoko bizimodu aldaketaz gain, lege hutsunea ere badago.

Hemendik aurrera hutsune hori desagertu egingo da eta, Gipuzkoako baserriarrek aukera berri bat izango dute: nahi izanez

Gaste izko Legebiltzarrak ENBAk bultzatutako legea onartu du azkenean, Gipuzkoako baserriarrek baserria bere osotasunean mantentzeko aukera ematen duen legea, hain zuzen ere.

Denok ezagutzen ditugu gure inguruan oinordetza arazoan ondorioz zatitu diren baserriak. Orain arte Espainiako kode zibila aplikatzen zenez, baserriko seme-alaba guztiei legez baserria-

URTIA baserna

Isidro Leiaristi San Lorentzo bailarako Urrategi baserriko semea da, baina orain 53 urte joan zen Urtia baserrira bizi izatera. Egzuz, baserriaren gaineko aldean eraikitako Urtia Berri etxean bizi da bere seme alabekin eta bilobekin. Etxeko atarian hizketan aritu gara baserriko bizimoduaren gora-beherei buruz, eta gauzak asko aldatu direla argi utzi digu Isidro.

"Lehen baserrixan artua, garixa, nabua... danak eraitzen zian, oin ez deu ezer ere eitxen, gainera nok einik ere ez dao". Dirua kaletik ekartzen dute gaur egun, ilobak ikasten zein lanean ari dira eta suhiak lantegitik ateratzen du egunero ogia. Baserrian ez omen dago Isidrori jarraituko dionik. "Baserrixan neu nao bakarrik lan eitzeko eta jua dan lau edo bost urtian hezurak minduta daukaraz eta lanik ez eitzeko esan zien".

Etxe berria egin zuten orain 20 urte inguru Urtia zaharraren gaineko aldean eta bi etxebizitza ditu. Lehen Urtia zaharrean bizi ziren, orain garaje moduan erabiltzen dute lehengo baserria eta bizimodua Urtia berrin egiten dute. Kaltetik gertu dago eta joan-etorriak egiteko automobilekin ederki moldatzen dira. Isidro esan digunez, garaia aldatu diren seinale da hori.

Ganadua eta ortua

Garai baten, orain garaje moduan erabiltzen duten baserrian ganadua ere izan zuten. "Ni etorri eta gero ere, behi eta txahal artian 18 buru izaten zian sarri, baina gaur dana lagata nao. Medikuek ondo ipiniko ninuela esan zien, baina horretarako lanari kolperik ere ez niola in bihar, bestela, sufrimendua besterik ez nabala eukiko". Ortua ere badaukate Urtian eta ateratzen dutena etxerako izaten da, "semiak eta alabak euren ortu zatixa dauke, eta etxerako generua etaratzako lain eitxen dabe lan".

Baserri guztietan bezalaxe, Urtian ere jaiegun gutxi izaten zela esan digu Isidro, "gaztetan pelotarako naban afizio demasa, eta azkenengo bi urtietan Eibarreraino ailegatzen nitzan partidora, ostian, asteguna baino txarraua izaten zan jaieguna. Gaztiak eskolan ez bazian astegunian etxian izaten zian. Jaixan, berriz, alde eitxen zebe eta biharra bakarrik in bihar". Isidro bera ere, gaurko Urtiako bizilagunak bezalaxe lantegian



Oporrak

Baserrian jaiegunik ez omen zen lehen, baina kaletik diru piska bat sartzen hasi zirenetik, Isidro Leiaristi urrutira joan izan da oporretan. "Abioian 16 bat bider ibili naiz. Suiza, Italia, Mallorca, Benidorm eta toki asko ezautu ditzut. Oin ere juteko lain banaiz, baina laguna falta". Isidro toki hauetako eguraldi epela aprobeztatzen du, baina baserria, zein mendiko giroa ere atsegin ditu.

aritutakoa da, baina nahiago izan du beti kanpoa, "mendixan lana beti eoten da, dirua ez badao ere, eta ni neu barruak baino hobeto hartzen ninduan kanpuak".

Emaztea ezkondu eta 25 urtera hil zitzaien eta hura kalera esnearekin, sagarrekin zein trutura jaisten bazen ere, gero utzi egin zuten. Alabak ere autoa ekarri zuen eta gauzak piskanaka aldatu egin ziren baserrian. Kalerako joera beti izan dute Urtiakoek, gainera herriatik kilometro eskasera dago baserria. "Oin gaztiek eskolatik ez dabe urtetzen 20 urtera arte, eta esku artian diru gehixao ikusten da". Baina kaleko lan kontuan ezezik, baserriko lanetan ere izan dira aldaketak. "Lehen dana eskuz in bihar zan, oin dian makinarixa guztiak daure soruan lan eitzeko. Eskolia ere badao, nik ardxien ondoren ikasi nitxuan tablia eta dotriña. Erderaz ere, hemen jendiari piskat entzunez ikasi naban".

"Baserri hutsak ematen dabanakin ezin leike jan gaur, goixari begira egonda ez dator ezer", esan digu Isidro Leiaristik. Gaur egun baserriko lanak

alboratuta dituzte eta lasai antzean bizi da Isidro Urtian.

URTIA

Auzoa: San Migel

Bizilagunak: Isidro Leiaristi,

81 urte; Jabier Larrañaga, 52 urte; Maïia Jesus Leiaristi, 51 urte; Iban Larrañaga, 24 urte; Nerea Larrañaga, 21 urte; Esther Larrañaga, 13 urte; Jose Mari Zabala, 84 urte; Jose Mari Leiaristi, 47 urte; Angela Zabala 48 urte; Maier Leiaristi, 21 urte; Itziar Leiaristi 16 urte.

IledMora:

11 hektarea

ZSPIOtagoa:

Baratza etxerako.

Santa Ageda eskea baserriz baserri

Elgoibarko Izarrak duela 6 urte berreskuratu zuen ohitura zaharra



Orain dela 6 urte berreskuratu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Santa Ageda bezperan baserriz baserri koplakantuan eta eskean ateratzeko ohitura zaharra. Urtero 70 baseni inguru koplakantzen dituzte, ahalik eta gehienetara joaten saiatu arren, ezinezkoa baita Elgoibarko baserri guztiak pasatzea. Santa Ageda bezperan atera ohi dira arratsaldean bi taldetan banatuta eta hainbat baserri auzo koplakant ondoren San Migelko Kalamua elkartearen biltzen dira afalrreko.

Aurten ostirala denez, arratsaldean ezezik gauez ere kantuan arituko direla esan digute Elgoibarko Izarrakoek. Koplakant kantuan Ziardak, Meabek, Narbaizak eta Areitiok jardungo dute eta koruan hamar lagun inguru joango da talde bakoitzean. Trikitilariak, berriz, Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantza izango dira. Basenitarrek aurreko urteetan erakutsitako esker ona ikusita, aurten ere gogoz abiatuko dira kantura. Batutako dirua iaz Artazo basenikoei eman zitzaion. Aurtengoan, elkartearen beharretarako izango da.

Isidro Leiaristi koplari

Duela sei urte berreskuratu zen ohitura hau, baina aurrez ere egiten zen Santa eskea baserriz baserri. Hori dela-eta, guk Urtia baserrira jo

Urtero 70 baserri inguru koplakantzen dituzte Elgoibarko Izarrako taldekoek.

dugu bertako Isidro Leiaristirengana lehengo eta oraingo Santa eskeari bumz kontatutakoak entzuteran, ondoren zuenganatzeko.

Isidrok koplari lanak egin zituen 11 urterekin hasi eta 47 urte bete zituen arte. Bere aita ere ahots onekoa zen eta koplakant aritua. Aita, nekeak gairitu zuen artean aritu zen Santa Eskean eta semeak bere bideari jarraituz, Elgoibarko eta inguruko baserriak koplakant zituen


Santa eskearen zailtasunak

Oraingo Santa eskea lehengoaren aldean erraza dela esan digu dmk, "oin atariraino kotxian etortzen dia, gu goizian goizao urten eta hurrengo goizaldera arte ibiltzen ginar. Bertsolarixak ere ondo preparama daure, gainera bi koplari txandan kantatzen dabe". Orain eskean datozei diru gehiago ematen zaiela ere aitortu digu Leiaristik, "garai haretan etzauan dirurik, eta orduan hiru txakur haundi ematen zitxuen. Ni koplari moduan ibiltzen nintzan eta izendautakua jasotzen naban. Gainerakua, hurrengo jaixan bazlcariren bat eitxeko ibiltzen zan eta geratzen zana seguruen reparti-

du ingo zebe". Baserritarren izenak aitatz gero orain asko pozten dira eta bere garaian ere halaxe izaten zela adierazi digu, "bere izena ahotan hartuaz kantau ezker asko estimatzen zebe, handik hurrengo egunetan ere haura esaten ibiltzen zian, eta guk ere bukaerako honrikin gelditxuta nahixao.

Harrera ona

Orain ere eskean joaten direnan ongi hartzen dituzte baserritarrek, inoiz koparen bat edo kafea ere eskaintzen diete gainera. Isidro Leiaristik bere ondorengoei gomendioa luzatzen die gainera, "nik ia 82 urte daukat ixa eta gaztieri beti esaten diuet holakuak etortzen dianian ondo hartzeko, afizio hori ez galrreko". Santa Ageda bezperan Isidro trikiti hotsa aditu orduko koplak entzuteko gertu izaten da urtero eta bera bezalaxe baita inguruko basenitar guztiak ere. Ohitura zaharra berreskuratu zen eta aurrerantzean ere koplakant jardungo dute egun hau iristen denean, horrela bada, makilekin lurtean jo eta eup!



Urtia baserriko Isidro Leiaristi urte askoan aritu zen koplakantari baserriz baserri.

Rosa Pallds 32 urteko katalindarra da. Bartzelona ondoan dagoen L'Hospitalet de Llobregat herrikoa da baina iaz etorri zen Eigoibarrera. Mendaroko ospitalean dihardu, erizain laguntzaile lanean. AEK euskaltegian ari da euskara ikasten, hirugarren mailarr, beste bi kataluiniar bezalaxe. Euskaldun zaharrek euskara ikasten ari direnei lagundu egin behar dietela azpintarratu du berarekin izandako elkarriketan.

"Euskaldun zaharrek lagundu egin behar diete euskara ikasten ari direnei"

— Katalunian hasi zinen euskara ikasten, ezta?

- Bai, orain dela 3 urte hasi nintzen, Bartzelonako Hizkuntza Eskola Ofizialean. Lanera Euskal Herri-
ra etorriko nintzela pentsatzen nuen eta hori izan zen ikasten hasteko arrazoi nagusia. Baina horretaz aparte, baita gustuko nuelako ere.

Nolakoa izan zen hasiera hura?

Oso ongi pasatu nuen. Oso gustuko nituen eskolak, atseginak eta interesgarriak zirelako. Gainera, talde oso jatorra neukan. Askok gustatu zitzaidan hizkuntza. Zaila dela nabaritu nuen, baina alde ona ere badu: oso interesgarria da. Bi urte egin nituen, hirugarrena ez nuen bukatu, karrera ikasten ari nintzenez, ez neukan klaseetara joateko denborarik. Baina

hona etorri gero ikasten segitzea pentsatuta neukan. Eta inoiz Bartzelonara bueltatzen banaiz, ikasten segituko dut gustatu egiten zaidalako. Benetan merezi du.

Orain Elgoibarko AEK euskaltegian zaude.

- Oso gustura nago, jende jatorra dago-eta. AEK euskaltegian berba egitea gehiago lantzen dela esan zidaten eta horregatik aukeratu nuen. Bi euskaltegi daude herrian. Kontua da zuk zer behar duzun; titulu ofiziala nahi baduzu, agian, Udal Euskaltegira joaten zara. Hitz egiterakoan erraztasuna bilatzen baduzu, berriz, AEKra.

— Eguneroko bizimoduan zein da zure harremana euskararekin?

- Ona da. Euskaraz esan ditzakedan gauzak

euskaraz esaten ahalegintzen naiz. Euskararekin harremana edukitzen saiatzen naiz, baina nahiko zaiia da, jendeak nirekin hitz egiterakoan erdarara jotzen duelako. Beraientzat errazagoa da. Euskaldun zahar batek badaki, azkar hitz egiten badu ez diozula ulertuko. Orduan, batzuetan pazientzia piska bat eduki behar da; pertsona horri ulertzen piska bat gehiago kostatuko zaiola jakin behar da eta poliki hitz egin behar zaiola. Baina ez da horrela gertatzen. Agian itsusi gelditzen delako egiten dute, baina horrek ez digu mnesede egiten.


— Nola ikusten duzu euskararen egoera Elgoibarraren?

- Kalean nahikoa euskara entzuten dela uste dut. Egoera hobetu eta gehiago hitz egin beharko litzatekeela pentsatzen dut, bertako hizkuntza delako. Ez da bakarrik, ez dakitenek ikasi egin behar dutela, dakitenek lagundu egin behar dutela baizik. Hizkuntza bat ezin da ikasi, norekin praktikatu ez baldin badaukazu.

— "ARIGERA" proiektuaren aurkezpenean hitzegin zenuen. Zer iruditu zaizu proiektu hori?

- Oso interesgarria iruditzen zait. Euskaldun berriez gain, zaharrak ere konprometitzea bilatzen du, azken finean, euskara denon kontua delako. Alde batetik, ikasten ari garenek esfortzu handia egin behar dugu, baina hitz egiten dutenek ere lagundu behar dute.

ROSA PALIÁS



• • • JAIOTAKOAK • • •

- Gorka Gastatiaga Yarza (Urtarrilak 3)
- Inmaculada Osoro Lorenzo (Urtarrilak 4)
- Ane Ipiria Escolar (Urtarrilak 7)
- Gorka Hidalgo Aranbarri (Urtarrilak 24)
- Ander Armendia Gabilondo (Urtarrilak 25)

• • • EZKONDUTAKOAK • • •

Guk dakigula, hilabete honetan ez da inor ezkondu Elgoibarren.

• • • HILDAKOAK • • •

- Maria Aiestaran Galparroso, 91 urte (Urtarrilak 4)
- Alberta Maria Etxaniz Arrieta, 94 urte (Urtarrilak 10)
- Victoriano Martinez Ballega, 74 urte (Urtarrilak 14)
- Luis Maques Tome, 69 urte (Urtarrilak 16)
- Agapita Soraiz Lizarra, 85 urte (Urtarrilak 17)
- Luis Irureta Gabilondo, 71 urte (Urtarrilak 23)
- Sabin Larrañaga Odria, 70 urte (Urtarrilak 23)
- Maria Goiogana Zulaika, 95 urte (Urtarrilak 28)
- Antonia Alonso Barrenetxea, 91 urte (Urtarrilak 30)


Maria albetxeberria Ipriaga

(1858-1993)



- 1898ko martxoaren 21ean jaio zen Elgoibarko Errosario kalean. Bederatzi anai-arreba izan ziren, bera zortzigarrena. Gutetako ikasketak moja frantsesekin egin zituen. Antonio Arrillaga sendagile ospetsuak ospitalea eduki zuen lekuan zegoen mojen eskola hau, gaur egun "Ametsa" taberna dagoen lekuan.
- Haurtz, aroa lagunekin soka saltoan eta beste hainbat jolas eginaz pasa zuen. 14 urterekin Elgoibarko "Miliontxua" familia aberatsaren etxera joan zen lanera. 3 urte pasa zituen bertan ume zain.
- Gero, Elgoibarrera itzuli zen eta Pedro Arrietak, "Azkoitxi", Elgoibarren zeukan abarketa lantegian denbora luzez egin zuen lan.
- Ezkongabeko denbora Plaza Handian eta enomierietan dantzan pasa zuen bere koadrilakoekin batera. Ondoren, Erasmo Unzueta elgoibartarrarekin ezkondu zen. Erasmo pilotari fina eta arrantzale trebea zen. Hiru seme-alaba izan zituzten; Maritxu (*), Manuel eta Julita. Manuel oso popularra izan zen gaztetan, kiroletan, ibilaldietan... edozertan ibili arren oso ezaguna zen bere izaera zela-eta.
- Madalatar egin zen familia eta urte askoan bizi izan ziren bertan. Maria emakume pertxenta, sinpatika eta izaera onekoa zen. Beti izan zen sinemen handikoa, gogokoak zituen Milagrosa eta Errosarioko amabirgina.
- Familia hazi zuenean alargun geratu zen. Lasai bizi zen, mundu honetako gauza asko ezagutzeko aukera izan baitzuen.
- Egunkaria irakurtzea, pasiarak ematea eta "pomer-neko etxean kartetan egitea ziren bere zaletasunak. Emakume ezagun eta irribartsu hau, familia girokoa, borondatea eta lagun artekoa zen.
- XIX. mendean jaio zen eta 95 urte izatera hitsi zen. 1993. urteko martxoaren 11n hil zen.

Juanito Gorostiza



ETXE BERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



A

ste honetako erretratu zaharra Jose Mari Oñederrak laga Argazkia zein urtetan atera zuten zehatz mehatz ez da akordatzen, baina 44 urte inguru edukiko dituela aipatu digu. Jose Marik gogoan duena, argazkia ekainaren 25ean atera zutela da, hau da, San Juan Txiki Egunean. "Urte osoko jairik inportantiena zan, zezenak, pilota partiduak eta erromerixia coten zian eta gazte eta umiek primeran pasatzen zaben". Jose Mariren etxe atarian atera zuen gazte koadrila honek erretratua eta ikusten denez, gaur egun baino gazte gehiago bizi zen orduan Altzolan.

eusliara atuna abora eushard

EUSKARA IKASTAROAK



Maila eta orclu guztiak

EGA

Irakaskuntzako 1. eta 2. perfilak

▮ Matrikulatzeko epea
otsailaren 11 arte



AEK EUSKALTEGIA • PLAZA TXIKIA, 3 Tel. 943 74 13 32



"Agresitlatea bideratzeko teknikaz beteta dago judoa"



Manu Mora

E Adina: 4D urte

E Gogoko beste kirolik?

Gimnasia, eskubaloia eta atletismoa.

• **Zaletasunik?**

Eskulanak eta pintura.

-Noiz eta nola hasi zinen judoan?

-Gaztetan Eibarren bizi nintzen. 13 urterekin Manu Agirre judo irakaslearen berri izan nuen. Kuriosidadeak bultzatuta, judo klase bat nolakoa zen ikustera joan nintzen. Lehen unetik asko gustatu zitzaidan eta judoan hasi nintzen.

-Garai haietan nahiko kirol arraroa eta ezezaguna izango zen, ezta?

-Bai halaxe da. Oso kirol ezezaguna zen inguruotan. Manu Agirre Donostiarra zen, eta bera izan zen judoa Debarrora ekarri zuen Iehena. Ondoren, bere ikasle izandakook zabaldu dugu judoa herriz herri.

-27 urte beranduago 5. Dan-a eskuratu duzu. Azaldu iezaguzu zer den Dan bat?

-Judoan, bakoitzaren maila neurtzeko koloretako gerrikoak erabiltzen dira: zuria, horia, laranja, berdea, urdina, marroia eta beltza. Kolorez aldatzeko azterketak gainditu behar dira. Gerriko beltza lortzeko, berriz, epaimahai baten aurrean egiten den azterketa bat gainditu behar da. Gerriko beltzaren banuan maila asko daude ordea, Dan-ak, alegia. Gerriko beltza lortu arte judoaren oinarriak irakasten dira, baina Dan-ak eskuratzeko goi mailako teknikak ezagutu behar dira. 6. Dan-a eskuratu ostean maisu handien kategorian lortzen da. Hauek gerriko zuri-gorria

izaten dute. Dena den, judoan beti dago zerbait berria ikasteko, irakaspenak ez du amaierarik.

-Zer egin behar da Dan bat eskuratzeko?

-Teknikaz, gain, judoaren alde egindako lana ere kontutan hartzen da. Dan batetik bestera denbora tarte bat pasa behar da derrigorrez. Zenbat eta Dan gehiago, denbora tarte luzeagoa da. 6. Dan-a eskuratzeko adibidez, beste 6 urte itxaron beharko ditut.

-Zer da judoa zuretzak, kirol bat ala filosofia bat?

-Niretzako filosofia bat da. Pertsona hezitzen laguntzen dien kirola da. Arte martzialak egiten dituzten pertsona gaizto gutxi ezagutzen ditut. Guztiok daukagun agresibitatea ezabatzeko eta bideratzen laguntzeko teknikaz beteta dago judoa. Errespetua eta disziplina moduko baloreak zabaltzen ditu. Bestalde, integrazio arazoak gainditzeko kirol egokia dela diote psikologoek. ONUk gomendatzen dituen kirolak bat da.

-Nola animatuko zenuke norbait judoa egitera?

-Etor dadila eta probatu, ez dago metodo hoberik. Pelikulek jende asko erakartzen dute, baina bertan agertzen denak oso gutxitan izaten du errealitatearen antza. Hori dela-eta, norberak probatzea da hoberena.

KIROL ALBISTEAK • KIROL ALBISTEAK

• Ur-sorosle eta lehen laguntza titulazioa lortzeko ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak otsailaren 8an hasiko den ur-sorosle eta lehen laguntza titulazioa lortzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaxoak 75 orduko iraupena izango du. Klaseak Olaizaga Kiroldegian izango dira ostiral arratsaldeetan eta larunbat goizetan. Titulu hauek, igerilekuetan eta hondartzetan lan egiteko aukera eskaintzen dute. Interesatuek Olaizaga Kiroldegian eman dezake izena, otsailaren 7a, baino lehen.

• Zikloturisten irteera otsailaren 6an

Elgoibarko L. agun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 6an, izango da 5. zikloturista irteera. Goizeko 10:00etan Txankakua zubitik abiatu, eta honako hau izango da egingo duten itzulia: Soraluze, Bergara, Oflati, Udana, Legazpi, Zumarraga, Azkoitia, Azkarate eta Elgoibar. Guztira 74 km dira. Nahi duen edonork parte har dezake.

• Ana Etxaniz korrikalariak G. postuan amaitu zuen Lasarteko Nazioarteko krosa

Ana Etxaniz korrikalari elgoibartar gazteak 6. postuan amaitu zuen Lasarteko Nazioarteko krosa. Anak kadete mailan parte hartu zuen eta ibilbideak zituen 2.100 metroak egin ostean, 6. postuan sartu zen helmugan. Katalunia, Aragoi, Kantabria, Alikante eta Euskal Herri osotik joandako saltakariak parte hartu zutela kontutan hartuz, emaitza ezin hobea lortu zuen atleta elgoibartarrak.

Eskolarteko Kros Txapeliketa otsEilvw 6an jokatuko da Mintxetarm

Gipuzkoa osotik etorritako 250 lasterkarik hartuko du parte

Mintxeta Atletismo Taldeak, V. Eskolarteko Kros Txapelketa antolatu du. Lasterketa, domekan, otsailaren 6an, izango da Mintxetako instalazioetan. Guztira, Gipuzkoa osotik etorritako 250 bat lasterkari gaztetxo izango dira Elgoibarren. Alebin, infantil eta kadete mailako korrikalariak hartuko dute parte krosean goizeko 10:30etik aurrera. Sari banaketa eguerdiko 12:30ean izango da.

Mintxeta Atletismo Taldea

Mintxeta Atletismo Taldea 1995. urtean sortu zen. Dena den, seriotasun handiagotziaz hasi ziren jokatzen. Eskolarteko Kirolekin elkarlanean prestatzen dituzte probak, baina arduradunek esan digutenez, "aurrera begira, talde sendo bat osatzea da gure asmoa, estatutuekin, batzarrekin, bazkideekin. eta talde batek izaten dituen beste gauza guztiekin". Gaur egun 60 gazte inguru daude taldean. Horietatik 50 dira bazkideak. Bazkide egiteko, urtean 2.000 pta. ordaintzearekin nahikoa da. Trukean kamiseta bat



Mintxeta Atletismo Taldeak 50 bazkide inguru eta 3 entrenatzaile ditu.

eta txandala jasoko du korrikalari bakoitzak. Dena den, entrenatzera joateko Eskolarteko Kiroletan izena emanda edukitzea nahikoa da. Astean hiru egunetan izaten dira entrenamentuak eta 6 urtetik hasi eta 14 urterainoko neska-mutilak daude taldean. Ardurdunek esan digutenez, "eskolarteko kirolak infanffletan (14 urte) amaitzen dira eta jende askori kostatu egiten zaio atletismoan jarraitzea, beste kirol batzuk nahiago baitituzte. Taldearen asmoa, aurrera jarraitzea nahi duten korrikalariak laguntzea da, Mintxetako kirol instalazioek ematen dituzten aukerak leku gutxitan baitaude, eta aprobetxatu behar diren".

Xabier Gonzalez eta Egoila Mora, Gipuzkoako judo txapeldun

Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko hainbat judokak, Donostia-ko Egia kiroldegian urtarilaren 22an izan zen Gipuzkoako Judo Txapelketan hartu zuten parte. Emaiztarik aipagarrienak Xabier Gonzalezek eta Egoitz Morak lortu zituzten. Xabier Gonzalezek urrezko domina irabazi zuen 18 urtetik beherako kategorian. Xabierrek 55 kg-tik beherako pisuan parte hartu zuen eta oso erraz irabazi zien bere lehiakide guztiei. Egoitz Morak, berriz, bi domina irabazi zituen, urrezko bata, eta brontzezkoa bestea. 90 kg-tik beherako pisuan eta junior kategorian urrezko domina irabazi zuen, junior mailan parekorik ez duela demost



Egoitz Mora (eskuman) eta Xabier Gonzalez (ezkerrean) dominak lepoan dituztela.

tratzuz. Senior kategoriako txapelketan ere hartu zuen parte eta brontzezko domina irabazi zuen. Andoni Atriok ere 90 kg-tik beherakoetan parte hartu ostean, 5. postua eskuratu zuen.

Bihar, otsailaren 5ean, Euskadiko junior mailako txapelketa jokatuko da Errenterian. Bertan, Egoitzek ahalegin guztiak egingo ditu aurten ere Euskadiko txapeldun titulua eskuratzeko (gogoratu iaz bera izan zela txapelduna). Bestalde, Xabierrek denbora gehiago dauka Txapelketa Autonomikoa prestatzeko, urrirarte ez baita jokatuko.

13M1BEEVE

Futbola

Lagun-Onak 1 - Haundi 0 (3. maila)
Aretxabaleta 1 - Elgoibar 3 (1. e. rre g.1)
Elgoibar 3- Hernani 3 (Jub. E.L.)
Elgoibar 6- Urnieta 2 (2. kad.)
Tolosa 1 - Elgoibar 1 (Oho. inf.)
Pedrusko 1 - Tolosaldea 3 (1. erreg.)
Mutriku 2 - Elgoibar 1 (Neskak)

Eskubaloia

Alaves 25 - Pagoaga Egi. 13 (Kad. nes.)
Arrasale Kirolak 9 - Gaur Elg. 26 (Kad. mut.)
Hondarribia 15- Tecnomeca Elg. 23 (Kad. mut.)
Alaves 13 - Unceta Elg. 29 (Jub. nes.)
Pneumax Elg. 29- Urola Irimo 20 (Jub mut.)
Urdaibai 19 - f.M.S Elg 17 (Senior nes.)
B.K.L.-C.A.F. 14 I.M.H. 40 (Senior mut.)

Idarraga Kafeak 3. saria

HAUNDIKO jokalaria erregularrena 99/00

JOKALARIA PUNTUAK

1- Aranbarri	29
2- Zulaika	28
3- Castro	25
4- Polo	21
5- Diaz	15
6- Alberdi	14
7- Bravo	14
8- Castillo	13
9- Loren	13
10- I. Leonardo	12
11- Ibarluzea	11
12- BaqtA	8
13- Guarrotxena	6
14- Ruiz	5
15- Manolo Ramos	4
16- Alkorta	4
17- Txasio	4
18- Caro	4
19- Edu	4
20- Fernandez	2
21- Mikel	2

G' E' N D A I

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 5

15:01 Elgoibar- Union Txiki (Oho. Ird.)

17:00 Haundi - Sestao River (3. maila)

Igandea, 6

16:30 Elgoibar - Ilintza (1. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

larunbata, 5

16:00 Pagoaga Elg. - C.B. Ermua (Kad. nes.)

17:30 Unceta Elg. - C.B. Ermua (Jub. nes.)

Igandea, 6

9:45 Gaur Elg. - Arrasate (Kad. mut.)

11:00 Tecnomeca Elg. - Aloña-Mendi

(Kad. mul.)

12:30 I.M.S Elg. - B.M. Zuazo (Sen. nes.)

Sekula baino lan gehiago aurkeztu dira Elgoibarko Izarraren Idatz Lehiaketetan

Kultur Etxeko hitzaidi gela jendez gainezka izan zen sari banaketa egunean



Ezkerreko argazkian Elgoibarko Izarraren Idatz Lehiaketan saritutako guztiak ageri dira. Eskumakoan, berriz, Goenkaleko aktore gazteak Jasone Osoro kazetari elgoibartarraren galderei erantzun zieten unea.

Toan den ostiralean, urtarrilaren 28an, 1999. urteko Elgoibar-**J** ko Izarrako Idatz Lehiaketako sari banaketa izan zen Kultur Etxean. Edizio honek sekula baino parte hartzaile gehiago edukitu du, guztira 675 gaztetxok idatzi baitute. 545 izan dira maila ezberdinetan ipuinak idatzi dituztenak eta 131 lan, beniz, bertolari hasi berriek aurkeztu dituztenak.

Ostiraleko sari banaketa arrakastatsua izan zen. "Goenkale" telesail-eko aktore gazte batzuk izan zirenez, Kultur Etxea neska-mutuez gainezka egon zen. Manex Rekartek, (Julen), Aintzane Gamizek (Elene) eta Itziar Ituñok (Nekane), Jasone Osoro kazetariak eginiko galderei erantzun zieten. Ekitaldiaren bukaeran, aktoreek beraiek banatu zituzten bertan bildutako artean zozketatutako 5.000 pezetako bost txekak.

ELGOIBARKO IZARRA IDATZ LEHIAKETAK 99



Gorane Gonzalez



Ander Izagirre



Alazne Escudero



Sare Gurrutxaga



Asier Astarloa



Antton Alberdi



Maite Uriarte

A MAILA (101 lan) (LHko 3. eta 4. mailak)

- **Olentzerori gutuna**
- 1. saria, Gorane Gonzalez
- 2. saria, Mikel Tadeo
- 3. saria, Mikel Arrieta

B MAILA (LHko 5. eta 6. mailak)

- **Deabruari gutuna (88 lan)**
- 1. saria, Ander Izagirre
- 2. saria, Jon Ander Cerron
- **Bertsoak (85 lan)**
- 1. saria, Alazne Escudero
- 2. saria, Aitzol Arrizabalaga

C MAILA (DBHko I. eta 2. mailak)

- **Ipuinak (104 lan)**
- 1. saria, Asier Astarloa
- 2. saria, Amaia Gorrotxategi
- **Bertsoak (46 lan)**
- 1. saria, Antton Alberdi
- 2. saria, Ane Larraiaiga

D MAILA (117 lan) (DBHko 3. eta 4. mailak)

- **Ipuinak**
- 1. saria, Maite Uriarte
- 2. saria, Eire Vila

E MAILA (135 lan) (LOGSEko 1. eta 2. mailak)

- **Ipuinak**
- 1. saria, Sare Gurrutxaga
- 2. saria, Miren Itziar Olaizola

San Juan Bosco, ikasleen joati eguna

Unibertsitateko ikasleak azterketetan zurgilduta dauden honetan, Elgoibarko Institutuko gazteek egun batez liburuak albo batera utzi eta jai giroan sartzea erabaki dute. Urtarrilaren 2Ban, joan den ostiralean, beraz, goizean goizetik San Juan Bosco eguna ospatu zuten. Ikasleek eta irakasleek artean jai giroa izan zen nagusi, eta datorren urteko San Juan Bosco Egunaren zai ikasketetan berriz murgildu dira denak. Bien bitartean egun hartako argazkiak ikusiz gozatzea beste erremediorik ez da izango eta guk horretarako parada eskaini nahi diegu bai beraiei eta baita bertan izan ez eta jaia beste modu batera ikusi nahi dutenei.



Soin hezkuntzako eskoletan ikasitakoa praktikan jartzeko aukara izan zuten ikasleek. Mendiko bizikletan azkar ibiltzeko gai direla erakutsi zuten, Mekatik hasita aldapan gora eta behera aritu baitziren.

1




2

Goitibeheren txanda etorri zen ondoren, baina gazteak goitik behera abiadura bizian baino, behetik gora karrikotxei bultzaka hobeto moldatu zirela dirudi.



3

Nirolelan ezezik sukaldariak ere trebeak direla demostratu zuten ikasleek, tortilei buelta emateko batzuk nahiko lan izan bazuten ere.



5

Arratsaldea lasai antzean igarotzen zuten ikasleek eta irakasleek antzezle abilen dohainei so eginaz. Barre egiteko aukera ere izan zuten aretora bildutakoek.



Cokuen txanda etorri zen gero, eta sokatiran zein futboleantrebeak direla erakutsi zuten ikasleek eta baita zenbait irakasleek ere.

4



**INTERESEKO
TELEFONOAK**

OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria 943 743864
Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
Odol Emailak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak... 943 740442
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10
Taxi geltokia . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
Udal Kirol Patronatua... 943 744415
Kultura Zerbitzua . 943 742158
Mendaroko Udala... 943 756100
Ongizate zerbitzua 943741008
Udaletxea 943 741050
Udaltzaingoa . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa .. 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296
Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola . . 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre . 943 74 02 67
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
I kastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea .. 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco ... 943 74 40 73
El Correo Español.. 943 74 10 82
Zazpiki irratia .. 943 74 34 74

5

larunbata

9:00 SANTA ESKEA
**ELGOIBARKO
KALEETAN**
Antolatzailea: Etxegina
taldea

13:00 SANTA
**AGEDAREN 75.
URTEURRENA**
Eskulturaren inaugurazioa
Bolatokiko parkean

19:30 ZINEA
"Tarzan"

22:15 ZINEA
"Jugando con el corazon"

igandea

10:00 ZIKLOTURISTEN
IRTEERA
Txankakua zubitik
Antolatzailea:
Elgoibarko Lagun Taldea

10:30 ESKOLARTEKO
KROS TXAPELKETA
Mintxetan
Antolatzailea: Mintxeta A. T.

16:30 ZINEA
"Tarzan"

19:30-22:15 ZINEA
"Jugando con el corazon"

7

astelehena

22:15 ZINEA
"Jugando con el corazon"

9

asteazkena

16:30 **IKASTAROA**
Gaia: Nortasunaren
garapena
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
hezitzailea eta sexologoa
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea E.T.
Izena emateko: Pitxintxun

10

osteguna

21:30 ZINE KLUBA
"Rosetta"

11

osteguna

22:15 ZINEA
"El fin de los dias"

111

**11
NE
A**



Zuzendaria: Willard Carroll.
Antzezleak: Gena Rowlands,
Scan Connery, Gilian Anderson.

"Jugando con el corazon"

Amodioari buruzko pelikula korar honetan hainbat aktore ezagunek hartzen dute parte. Belaunaldi ezberdinetako bikoteen arteko amodio erlazioak kontatzen ditu filmeak. Bikote bakoitzak amodioa ulertzeko modu desberdinak ditu. Guztiak bizi dira Los Angeles hirian eta hasieran elkar ezagutzen ez badute ere, gutxinaka bata bestearen bizimoduetan sartuko dira istorioak iramen dituen 8 egunetan.

• Sagardotegira irteera eta Mus Txapelketa Gaztetxean

Elgoibarko Gazte Asanbladak sagardotegirajoateko autobusa antolatuta du. Otsailaren 25ean, ostirala, izango da irteera Madalako parketik arratsaldeko 20:30ean. Txartelak Lanbroa eta Txuri-Beltz tabernetan daude salgai eta 3.500 pta. balio du tiket bakoitzak. Itzulerara, goizaldeko 6:00-6:30ak bitartean izango da Hernanitik. Bestalde, gaur, otsailak 4, mus txapelketa izango da Gaztetxean. Txapelketa gaueko 23:00etan hasiko da eta izen-ematea gaueko 22:30ak baino lehen egin behar da. Bikote bakoitzak 500 pta. ordaindu beharko ditu.

• Sagardotegira AEKrekin

AEK-k antolatutako Sagardotegi Eguna otsailaren 12an, larunbata, izango da Hemanin. Egunean zehar bertako produktuen azoka, kale animazioa, makailu lehiaketa, trikitilariak, bertsolariak, etab. izango dira bertan. Arratsaldeko 20:30ean, inguruko sagardotegietan izango da afaria. Makailu tortila, makailu frijitua eta txuletaz osatutako afariak 2.500 pezeta balio du. Gauerditik aurrera "Ene Bada" musika taldeak girotuko du gaua Tilosetako karpan. Dantzaldiaren ostean, Dise Jockeyak egongo dira. Elgoibartik bertara joateko autobuserako txartelak jasotzeko epea otsailaren 9ra artekoa izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, AEK Euskaltegia jo: Plaza Txikia. 3 edo 943 74 13 32 telefonora hots egin.

• Santa Ageda eskearen 75. urteurreneko ekintzak

Santa Agedako koruak herriko kaleetan zehar koplatan irtetzen direla 75 urte beteko dira aurten. Hori dela-eta, Santa eskea sinbolizatzen duen eskultura bat inauguratuko dute Bolatokiko parkean, zapatuan, otsailaren 5ean. Eskulturaren inaugurazioa eguerdiko 13:00etan izango da. Aurrez, Santa Agedako koruak kopla kantari irtengo dira goizeko 9:00etan. Goizeko 11:30ean San Lazaro egoitzan egingo dute geldialdia eta esan bezala 13:00etan eskultura inauguratu eta oroigarriak banatuko dituzte Bolatokiko parkean.

• Hauteskundeak eta ikastaroak Jubilatuen Biltokian

Elgoibarko Jubilatuen Biltokitik adierazi digutenez, lehendakari tzarako hauteskundeak martxoaren 12an izango dira. Hori dela-eta, hautagai zerrenden aurkezpen epea irekita dago otsailaren



29a arte. Interesatuak edozein xehetasun kontsultatzeko zuzendaritzarekin kontaktuan jar daitezke.

Bestalde, Jubilatuen Biltokiak bi ikastaro antolatu ditu otsailerako. Otsailaren 15ean hasiko den lehen ikastaroa, eskulanei buruzkoa izango da. Bigarren ikastaroa, berriz, oroimen hobekuntzari buruzkoa otsailaren 16an. Bi ikastaroak arratsaldeko 15:00etan izango dira Jubilatuen Biltokian bertan. *Gizartekintzaren* babesari esker ez da ezer ordaindu beharrik izango, baina bazkide txartela erakustea derrigorrezkoa izango da.

• Nortasunaren garapenerako ikastaroa

"Haizea Emakume Taldea" k nortasunaren garapenera buruzko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 9an hasi eta ekainera arte Iuzatuko da ikastaroa. Asteazkenero izango dira klaseak Kultur Etxean arratsaldeko 16:30etik 18:30era. Prezioari dagokionez, "Haizea"ko bazkideek 3.500 pta. ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 5.000 pta. Izena "Pitxintx&" dendan eman daiteke edo 943 74 32 06 telefonora deituta.

11 /11 1 11

FARMAZIAK

Egunez Gaeuz

5 Etxeberria* Escala (Santa Ana kalean)

6 Etxeberria* Escala (Santa Ana kalean)

7 Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)

8 Escala Escala

9 Bidasolo Bidasolo

10 Etxeberria Etxeberria (Santa Ana kalean)

11 Fernandez Fernandez *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

J. IGNACIO FERNANDEZ

Herriko enparaniza 4,

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

6 igandea Ibarrenea

ONGARRI
zine kluba



Zuzendaria: Lue eta Jean-Pierre Dardenne.
Antzezleak: Emille Dequenne, Fabrizio Rongione.

"Rosetta"

Hauxe izan zen Cannesko Zinemaldiko sorpresa handia 99an. Rosetta gazte lanabetua da eta lan bila dabil beti. Edozertan lan egiteko prest dago, baina ez du ezer ere aurkitzen eta etorkizun beltza du. Hori gutxi bahtz, ama alkoholikoa du, eta Roulotte batean bizi dira biak. Rosettak besteak moduko pertsona normala izan nahi du baina ezinezkoa zaio. Goffoto biziko oihuhandi bat dugu film hau, mendebaldeko kontzientzia "onari" egiten baitio oihu.

Oharra

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorazten dizuegu.

Lana

• ESKAERA •

- Neska esperientziaduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Egunean 2 ordu.v **609 52 68 69**
- Umeak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperientziarekin. **it 943 74 34 68 (Silvia)**
- Neska eskaintzen da arratsalde lan egiteko.v **943 74 18 72** (21:00etatik aurrera deitu. Amagoia)
- Neska eskaintzen da orduka plantxa egiteko.te **667 34 86 07 (Sandra)**

Etxebizitzak

- Pisua salgai Eibarren. v **609 95 16 41**
- Pisua salgai Santa Ana kalean. 3 gela ditu. a **943 74 41 35**
- Etxebizitza alokatzen da Deban ekainera bitartean **943 74 13 39 (Ane)**
- ♦ Etxea saltzen dut Altxolan. Prezio ona. **943 74 37 41**
- Pisua saltzen da Urasandin riekian. 85m² ditu. a **943 74 39 91**
- Lokala saltzen da Altxolan. 75m². **ir 943 74 39 91**
- Etxea alokatuko nuke Elgoibarran. 3 gela edo 2 logela eta egongela **tr 696 47 16 95 (Manu)**
- Bergarako erdigunean etxea salgaim. **943 76 54 24** (gauz deltu)
- Etxebizitza (garajea+ganbara) salgai Basarte Kalean. Eraikitzeaz. Lehen eskukoam **943 86 52 17/ 943 74 20 84**

Salerosketak

- Ford Fiesta berria saltzen da. SS-BG. 6 hilabeteren **639 39 08 08.**
- Ford seort 1.6 I. salgai. **ir 943 74 33 51 / 943 19 25 71 (Rosa Mari)**
- Peugeot 205 autorako Pirelli gurpilak salgai.v **943 74 43 16** (Gauz deitu)
- Peugeot etxeko "Zenith" markako motorra salgai. Erabili gabe. **tr 943 74 30 52** (eguerdi eta iluntzetan deitu)
- Moncayo Costa Azul karabana salgai. 3 pertsonarentzat. a. **656 77 28 80**
- Ofizinako materiala salgai: 2 mahai. 2 aulki,3 artxibadore, fotokopiagailua eta faxa. **tr 656 77 28 80**
- Opel Astra SS-AS salgai. 650.000 pta. **te 943 74 09 44**

Bestelakoak

- Ikasle pisua osatzeko jendea behar da. 2 logela libre. **tr 943 62 53 77 (Fernando)**
- Sofak hartuko genituzke. Botatzeko badituzu deitu eta pasako gara bilam **943 74 31 81**
- Graduututako betaurrekoak aurkitu ditugu Pedro Muguruza etorbidean **943 74 13 43**
- Animalia ile luzedun alfombra, edota lanuak botatzeko badituzu, deitu **943 74 32 06 telefonora. Jasotzera joango gara.**
- Bi neskak errealeko *bufa* topatu dute merkatu plazako eskilaretan eta Udaltzaingoan dago.

Agurrak

- **Zorionak Onintza** zure ikasle lagunen partez. Ondo hasi zure 30. urfia eta hurrengo urtian ia urnian erroparen bat enegalatzen dizugun.

- Zorionak **Pedro Joseri**, hilaren Iean, urteak bete zituelako. Bere emazte Ma Joserren, Aneren eta Lararen partez muxu handi bat. *zahaxl*
- Zorionak **Hasier Larreari**, hilaren 3an, 12 urte bete zituelako. Nerea.
- Zorionak **Marla Conderi**, otsailaren Sean, 13 urte beteko dituelako. Bere lagun Soniaren partez. la nobixua aurkitzen duzun!
- Zorionak **Ibon Arriolari**, otsailaren 3an, urteak bete zituelako. Danel.
- Zorionak **Manoli Lopezi**, otsailaren 2an, urteak bete zituelako. Gorkaren, Josebaren eta Ikerren partez.
- Zorionak **Arritxu Zialtzeleri**, gaur 13 urte bete dituelako. Wastolako DBH I ekoen. Bereziki mutilak.



• Zorionak **Osear Martinezi**, gandean, hilaren 6an, 13 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki arrea Miriamen partez.

- Uxue eta Antton, Azkue Saria eskuratu duzelako zorionak amamaren partez. Elgoibar maila altuan ipini duzue!



• Zorionak **Arkaitzi**, otsailaren 7an, 4 urte beteko dituelako. Gurasoen partez.



• Zorionak **Alejandro Berazari**, otsailaren 2an, urtebete egin zuelako. Lehengusina Naiara, M. Isabel, Andrea eta lehengusu Gonzalo eta Jorgeren partez.



• Zorionak **Sorayari**, otsailaren 2an 10urte beteko dituelako. Familiaren, Leireren, Andoniren eta Sarrairen partez.



• Zorionak **Ainhoari, Yoliren eta Javiren**, otsailaren 8an, 4 urte beteko dituelako. Ongi pasa eta opari asko jaso.



• Zorionak **Borjari**, otsailaren Iean, 8 urte beteko dituelako. Gurasoen eta anaiaren partez.



• Zorionak **Arritxu Zialtza Aditri**, gaur, 13 urte bete dituzulako. Egun ona pasa dezazula. Guraso Jose eta M^a Jesusen, Josuren eta Larraitzaren partez.



- Zorionak **Ainhoa**, otsailaren 8an, 4 urte beteko dituzullako. Familiaren eta bereziki Aitorren, lehengusina Maiarren eta lehengusu Julenen partez. Egun ona pasa.



• Zorionak **J.M. Martin Prietori**, urtarrilaren 25ean 2 urte bete zituelako. Osaba izabela Jose, Agustin-Mary, Luis, Isa-Deltin eta bere maskota Nelaren partez.



Gt.nzn PAPERDENDA

Mozorroak %50eko beherapenarekin
Pelukak %20ko beherapenarekin

theluterioIk

Cordon, Vilarchao, c.b.

11: EKCDRAZICJA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC eta PARETAK,
SINTASO1A, ZOLU INDUSTRIMAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTU1AZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

**ELGOIBARKO
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

MATRIKULAZIOA

IKASTURTEA: 2000-2001

**HAUR, LEHEN eta DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN.**

Otsailaren 7tik 18ra.

Hern erriaren eredu

perri Eskolako Ate trekie otsailaren 12a
Inkñitñutuan guvisoentziik' bilera, Otsailaren 12a (11:30-13:00 ur).



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tei.: 943 74 08 79

E-maila: info.elgoibar@educanet.net



EUSKO JAURLARITZA

**HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
MEHETA SAILA**



Elgoibarko institutua

San Roke, 1 • Arregitorre, 2

Ter.: 943 74 80 19

E-maila: bulegoa@elgoibar.hezitek.net

38 urte herri boni Euskal Eskola eskaintzen



“Etorkizuna Gustura Gauzatzen”



Ikastola



Ikastolen Elkartea

Matrikula epea: Otsailak 7tik 18ra. Tel. 943 744 441